

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

NARRATIVA EUSKERA 14-16 AÑOS
PRIMER PREMIO

Gure istorioa Aiora Avila Larrageta

1915eko uda batean hasi zen. Oraindik gogoan dut gure begiek topo egin zuten lehengo aldia. Plazako kafetegian nengoen, igandeetako soineko urdina neraman eta nire ama ondoan neukan txokolate bat hartzen. Ez dut gogoan zer esaten zidan, baina seguruenik zerbaitez kexaka zegoen betiko moduan. Aspertuta, plaza gainbegiratu nuen, eta nire begirada ez ohikoa zen emakume batengan gelditu zen. Zu zinen, nahi gabe guztien begiradak harrapatzen. Bitxia iruditu zintzaizkidan, praka beige batzuk zenituen jantzita eta zure ile marroia belarrietatik moztuta. Horrelako emakume bat ikusi nuen lehenengo aldia izan zen. Goitik behera begiratu zintudan txundituta, eta halako batean gure begiek topo egin zuten. Mundua gelditu zen bakarrik egongo bagina bezala.

—Ana, ikusi duzu emakume arraro hori? —galdetu zidan nire amak zu hatz erakusleaz seinalatuz.

Nire ama begiratu nuen gure begien konexioa hautsiz.

—Bai, oso emakume bitxia da.

—Nabari da ez dakiela emakume baten lekua zein den. Andreok ez ditugu horrelako arropak jantzi behar, gizonezkoek baizik.

Nire amak zure tankera kritikatzan jarraitu zuen, eta ni zure begi grisen bila hasi nintzen, baina bilatu arren ordurako ez zeunden plazan. Mamu baten antzera desagertu zinen. Asteak pasa ziren eta ezin zintudan nire burutik kendu. Egunero joaten nintzen plazara zu agertzeko itxaropenarekin. Egun euritsu batean betiko kafetegian nengoela ikusi zintudan. Txipa eginda zeunden euripean oinez presaka. Gaixotuko zinela pentsatu nuen, eta nire aterkia hartuz zuregana hurbildu nintzen.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

—Kaixo, Ana izena dut.

—Kaixo, ni Lucia naiz —esan zenidan irribarretsu.

—Blai eginda ikusi zaitut eta nire euritakoa eskaintzera hurbildu natzaizu.

—Ez da beharrezkoa, bestela zu bustiko zara.

—Orduan zu zoazen tokira iristera lagunduko zaitut. Horrela inor ez da bustiko.

—Ongi da. Mila esker guztiarengatik.

Elkarrekin gindoazen zure etxeraino kontu-kontari eta barrezka. —Moduren batean itzuli beharko dizut nigatik gaur egindakoa.

—Niretzat aski da egin didazun konpainiarekin.

—Beno, agur, Ana.

—Agur.

Nire etxerako bidean sinesgaitza iruditzen zitzaidan arratsalde horretan gertatutakoa. Liluratuta utzi ninduzun, zure bizipenak, zure nahiak eta zure ametsak kontatzen zenituen moduarekin. Esaten zenuen guztia pasio handiarekin kontatzen zenuen eta zure ahotsak txunditu ninduen ni harrapatuz. Hurrengo egunean, nire amarekin batera joan nintzen kafetegira. Betiko txokolatea hartu eta garrantzi gabeko gauzez hizketan hasi ginen.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

Bat-batean ahots fin eta goxo bat entzun nuen nire atzean.

—Kaixo, zer moduz? Ikusi zaitut eta agurtzera hurbildu naiz —esan zenidan.

—Kaixo, ongi nago. Behar den bezala aurkeztuko zaituztet. Ama, hau Lucia da, lagun bat. Lucia, nire ama Carmen.

—Kaixo Carmen.

Nire amak begiradarekin epaitu eta ez zizun hitzik esan.

—Nahi baduzu gurekin eser zaitez eta lasaiago hitz egingo dugu —eskaini nizun.

—Ez! Erosketa batzuk egin behar ditugu eta joan behar gara, bestela gautuko zaigu —adierazi zuen nire amak ziztu bizian.

Besoa hartu zidan eta arrastaka kafetegi horretatik eraman ninduen.

—Ezin duzu emakume horrekin hitz egin. Zer pentsatuko dute besteek, Ana?

—Ez zait axola besteek pentsatzen dutena. Oso pertsona interesgarria da eta besteek horrela ikusi beharko zenukete.

Nire amak, ezin sinetsiz entzundakoa, etxera itzultzea erabaki zuen, eta ni harekin joan nintzen gogo txarrez.

Gure hurrengo elkartzean barkamena eskatu nizun nire amaren portaeragatik. Zuk jendea zurekin horrela erreakzionatzera ohituta zeundela esan zenidan. Hori entzutean txundituta

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

gelditu nintzen; nola izan zitekeen zu bezalako emakume bat horrelako gauzetara ohituta egotea? Garrantzia kendu zenien egoera horiei eta zure eguna zer moduz zihoan kontatu zenidan. Oso emozionatuta zeunden zure ametsa betetzeko hurbilago zeundelako, erizain bihurtzea. Zure osaba kontsultan laguntzen zenuen iristen zitzaizkion gaixoekin eta pixkanaka-pixkanaka jakintza berriak ikasten zenituen.

—Noizbait gaixotzen banaiz zu deituko zaitut ni sendatzeko.

—Oraindik ez daukat beharrezko ezagutza-maila hori egiteko, baina, pozik zainduko zintuzket.

Hori esatean zure ezkerreko ezpain-ertza altxatu egin zenuen, ni liluratuz keinu horren bitartez.

—Ziur erizain bikaina bihurtuko zarela.

Astero gauza bera egiten genuen, eta denborak aurrera egin ahala, gure erlazioa gero eta estuagoa zen. Edozein gauzari buruz hitz genezakeen gaiak axola gabe. Gure arazoak eta ametsak ezagutzen genituen. Gogoan dut nire nahia kontatu nizun eguna. Parkean geunden udazkeneko hostoek orbela osatzen zuten bitartean. Garrantzi gabeko gauzez hitz egiten geunden eta bat-batean zerikusirik ez zeukan galdera bat egin zenidan.

—Lan egin bazenezake, zertan izango litzateke?

Harritu egin nintzen ez nuelako espero horrelako galderarik, baina erantzuna argia zen nire buruan.

—Idazlea, edo kazetaria agian.

—Zergatik idazlea? —jarraitu zenuen.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

—Txikitan koaderno bat oparitu zidan nire osaba Pablok. Bazekien istorioak asmatzea maite nuela, eta hark horiek entzutea. Horregatik guztiak idaztea eskatu zidan. Orduetik idazle izan nahi nuen.

—Pablok oso gizon interesgarria dirudi, elkar ongi ulertzeko modukoa. Baina, orain ez duzu idazten?

—Ez, nire amak ergelkeria horiek baino gauza garrantzitsuagoak egin behar ditudala esan zidan.

Nire amak esandakoa ez zenuen ulertzen nik ezta ere, egia esan.

—Berriz idatzi beharko zenuke. Zure ametsa da, eta ziur nago bikain egiten duzula.

—Ez da hain erraza. Nire amak ez dit utziko eta, gainera, ez dakit idazmakina erabiltzen.

Pentsakor gelditu zinen, aurpegia zimurtu zitzaizun. Abendua iritsi zen, eta honekin batera Eguberriak. Nik praka berri batzuk erosi nizkizun eta zure gustukoena zen idazlearen liburu berria. Aldiz, zuk kaxa bat gutun azal batekin eman zenidan. Hau ireki nuen, barnean zuk

eskuz idatzitako esaldi bat zegoen: “Ez utzi zure ametsak iraganean iltzaturik”. Ondoan idazmakina erabiltzen ikasteko ikastaro baten informazioa. Kutxa irekitzerakoan aho bete hortz gelditu nintzen. Idazmakina bat zen.

—Gustatu zaizu oparia? —esan zenidan zure ezpainetako irribarre goxoarekin.

Zuregana hurbildu nintzen begiak malkoz beterik, eta hitzik esan gabe besarkatu zintudan. Ez genuen hitzik behar gure artean ulertzeko. Handik bi astera ikastaroa hasi nuen. Lehenengo egunean irrikaz eta beldurrez beteta nengoen. Zu klase barneraino etorri zinen nire ondoan, eta hitz goxoz lasaitu ninduzun. Egun horretako klasea bukatu zen eta atetik atera nintzenean bertan zinen. Ni itxaroten, zer moduz nengoen galdetzeko. Kafetegira abiatu eta ikasitako gauza berri guztiak kontatu nizkizun. Orduetik aurrera egunero gauza bera errepikatzen genuen. Urte batzuk pasa ziren, 1918. urtera iritsiz. Nik ikastaroa bukatuta eta istorio berriak idazten nituen. Zu, jadanik, erizain bikaina. Gero eta gutxiago ikusten genuen elkar, oso lanpetuta zenbiltzalako

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

jende asko joaten baitzen kontsultara sukarra eta beste hainbat sintomarekin. Hasieran gutxi batzuk ziren, baina denboraren poderioz kopurua handituz joan zen. Sendagileek gaixotasun horri espainiar gripea deitu zioten. Gaixo gehienak biriketako odoljarioaz hiltzen ziren. Areto batzuk prestatu ziren gaixoak berrogeialdian jartzeko, eta zu erizain arduratsua bezala bertara joan eta zure laguntza eskaintzen zenien. Etxean gelditzeko esan zenidan eta nik zuri, mesedez, gauza bera egin zenezan, baina besteak laguntzeko behar handiegia zenuen. Ez nuen nire burua lasaitzen zu ikusi arte, izan ere, egunero elkarrekin afaltzen genuen zu zure etxera itzuli arte. Gaixoiei buruz hitz egiten zenidan.

—Gaur 7 urteko neskatila bat etorri da bere amarekin. Sukarra zeukan eta etengabe oka egiten zuen. Gazteegia da, ez du denborarik eduki bizi ahal izateko. Berriz joango naiz bera ikustera.

—Eraman iezaiozu salda pixka bat —eta baneukan ni txikia nintzeneko panpin bat gordeta. Azken horren bila joan nintzen bitartean

—Mila esker. Maite dut nola jendea laguntzen saiatzen zaren ezagutu gabe.

—Zu egunero jende asko laguntzen saiatzen zara, nik ere zerbait egin nahi dut.

Afaria bukatu ostean, salda eta panpina hartuta, neskatila ikustera abiatu zinen.

Handik bi asteetara oso alai geunden, izan ere, Maria izeneko neskatila sendatzen ari zen. Oso maitekorra zen eta harreman hurbila sortu zen gure artean. Ahal zenuen guztietan berarekin egoten zinen, eta nik ipuinak idazten nizkion Mariari, aspertu ez zedin. Baina espero ez genuena gertatu zen egun batetik bestera. Bat-batean Maria berriz gaixotu eta arnasteari utzi zion.

Etxera berandu iritsi zinen eta begiak gorrituak zenezan negar egiteagatik. Mariaren heriotza jakinarazi zenidan malkoei eutsi ezinik. Besarkatuta egon ginen denbora luzez negarrez. Azkenean lo gelditu zinen eta nire ohean sartu zintudan, eta nik alboko sofan lo egin nuen. Hurrengo egunean esnatu nintzenean ohean jarraitzen zenuen. Pena

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

handiz zu esnatzera hurbildu nintzen, baina nire eskuak zure aurpegia ukitzerakoan sukarrak zeundela ohartu nintzen. Ezin nuen sinetsi, ezin zen egia izan. Zure kopetan oihal bustiak jarri baina alferrik. Denbora gehiena lo egoten zinen, eta ni ez nintzen zure albotik urruntzen. Une batean eskua hartu zenidan ni esnatzeko.

—Ana, hil egin behar naiz? —galdetu zenidan.

—Ez nuke hori gertatzerik nahi, sendatuko zara.

—Hil egiten banaiz zerbait esan behar dizut. Maite zaitut.

Zure bularra gelditu egin zen zure bihotzarekin batera. Nirea, hil egin zen zurekin batera. Ezin izan nuen negarrik egin, bakarrik zure aurpegia begiratu nezakeen. Kafetegi hartan ikusi zintudanetik maitemindu ninduen emakumearen aurpegia.